


Sei zifra baino gehiagoko zenbakiak

1 Idatzi zenbat bateko diren eta nola irakurtzen diren.




GOGORATU

Milioiko 1 = 1.000.000 B
 H. milioiko 1 = 10.000.000 B
 E. milioiko 1 = 100.000.000 B

- 2 milioiko = 2.000.000 B ▶ Bi milioi
- 3 milioiko = _____ ▶ _____
- 4 H. milioiko = _____ ▶ _____
- 6 H. milioiko = _____ ▶ _____
- 3 E. milioiko = _____ ▶ _____
- 8 E. milioiko = _____ ▶ _____

2 Idatzi zenbakiak taulan eta osatu bakoitzaren deskonposizioa.



1.569.570
 7.210.045
 43.712.900
 90.042.060
 513.070.300
 832.970.621

E. milioiko	H. milioiko	Milioi- koak	EM	HM	M	E	H	B




- $1.569.570 = 1.000.000 + 500.000 + 60.000 + 9.000 + 500 + 70$
- $7.210.045 =$ _____
- $43.712.900 =$ _____
- $90.042.060 =$ _____
- $513.070.300 =$ _____
- $832.970.621 =$ _____

3 Idatzi zenbaki bakoitzaren aurrekoa eta hurrengoa.

_____ ◀ (19.900.990) ▶ _____ _____ ◀ (12.200.999) ▶ _____

_____ ◀ (78.999.999) ▶ _____ _____ ◀ (50.999.999) ▶ _____

4 Bilatu eta inguratu.

-  5 zifrak 5.000.000ko balioa duen zenbakiak.
-  5 zifrak 50.000.000ko balioa duen zenbakiak.
-  5 zifrak 500.000.000ko balioa duen zenbakiak.

5.142.850	8.515.000	55.850.000
5.589.800	98.000.500	554.976.000
95.850.000	940.321.500	505.567.950





- Nola irakurtzen da berdez eta urdinez inguratuta dagoen zenbakia?

- Nola irakurtzen da zortzi zifrako zenbaki handiena?

- Nola irakurtzen da bederatzi zifrako zenbaki txikiena?

5 Erreparatu grafikoari eta erantzun.

Grafikoan 2007tik 2011ra arteko Espainiako biztanleriaren bilakaera ageri da.



- Zer biztanleria zegoen 2007an? Eta 2011n? Idatzi urte horietako biztanle kopuruak zifraz.

2007 ▶ _____

2011 ▶ _____

- Zer urtetan gainditu zituen Espainiako biztanleriak berrogeita zazpi milioiak?

Hurbilketak

1 Irakurri eta erantzun arrazoiak eman ez.

Erromatar Inperioaren goraldian, 213. urtearen inguruan, biztanleria 45.800.000 pertsonakoa zen, gutxi gorabehera, oso kopuru handia garai hartarako. Erromatarren arrakastaren arrazoiak bat haien galtzadak izan ziren, lurraldean batetik bestera joateko aukera ematen zuten harrizko errepideak. Inperio osoan gutxi gorabehera 100.000 km galtzada izatera heldu zirela uste da.



- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Zer urtetan lortu zuen goraldia Inperioak gutxi gorabehera? Hurbildu hamarrekotara eta ehunekoetara. | <ul style="list-style-type: none"> ■ Demagun biztanleen kopuru zehatza 45.738.592 zela eta galtzada-kilometroak 102.234. Ongi eginda egongo al lirateke goiko testuko hurbilketak? |
| <ul style="list-style-type: none"> ■ Hurbildu biztanleen kopuru zehatza unitate-mailetara. | <ul style="list-style-type: none"> ■ Hurbildu kilometroen kopuru zehatza unitate-mailetara. |

2 Lotu zenbaki bakoitza haren hurbilketak izan daitezkeenekin.



- | | |
|-------------|-------------|
| 1.236.321 ■ | ■ 1.000.000 |
| 1.623.000 ■ | ■ 2.000.000 |
| 1.362.297 ■ | ■ 1.200.000 |
| 1.489.635 ■ | ■ 1.300.000 |
| 1.299.954 ■ | ■ 1.500.000 |
| 1.911.921 ■ | ■ 1.600.000 |
| 1.864.560 ■ | ■ 1.800.000 |
| 1.645.009 ■ | ■ 1.900.000 |

GOGOAN IZAN

Zenbaki bat zenbait hurbilketarekin egon daiteke lotuta, kasu bakoitzean zer mailatara hurbiltzen den.

3 Erreparatu zenbakiei eta idatzi dagozkien lekuan edo lekuetan.

30.000.000	26.428.500	26.400.000	26.374.800
26.430.000	26.374.810	26.370.000	26.428.490
26.375.000	26.000.000	26.430.000	26.428.000



4 Irakurri esaldiak eta berridatzi, haietan ageri diren zenbakiak hurbilduz. Idatzi zer unitate-mailatara hurbildu duzun eta zergatik egin duzun horrela.

- Eiffel dorrearen urtebeteko bisitarien errekorra 6.983.000 pertsonakoa da.
- Dorrea 324 m altu da, antenak barne.
- Dorrea argiztatzeko, 336 proiektagailu erabiltzen dira.
- Goraino joateko, 1.665 eskailera-maila daude.
- Dorreko igogailuek urtebetean egiten duten distantzia 103.000 km-koa da.
- Dorrea egiteko, 796 egun behar izan zituzten.



Eguzkiaren eta planeten arteko distantziak aztertzea

1 Irakurri taulan Eguzkitik planeta hauetara arteko distantziak eta idatzi letraz.

Planetak	Eguzkirako distantzia	Irakurketa
Merkurio	57.910.000	
Artizarra	108.200.000	
Lurra	149.600.000	
Marte	227.940.000	
Jupiter	778.330.000	



Osatu distantzia bakoitzaren deskonposizioa.

Merkurio 57.910.000 = 5 H. milioiko + 7 milioiko + _____ =
 = 50.000.000 + _____

Artizarra 108.200.000 = _____ =
 = _____


Lurra _____ = _____ =
 = _____

Jupiter _____ = _____ =
 = _____

Idatzi zer balio duen batekotan zenbaki pare bakoitzean adierazitako zifrak.

9 zifra	4 zifra	1 zifra
149.600.000 ▶ _____	149.600.000 ▶ _____	57.910.000 ▶ _____
57.910.000 ▶ _____	227.940.000 ▶ _____	149.600.000 ▶ _____

Ikusi taulan zer distantzia dagoen kilometrotan planeta bakoitzetik Eguzkira eta idatzi planeten izenak.



BERRIKUSKETA

1 Kalkulatu.

1. $42.147 + 8.265 + 7.784 =$ _____

2. $9.725 + 4.298 + 34.146 =$ _____

3. $90.000 - 46.423 =$ _____


4. $90.130 - 55.210 =$ _____

5. $72.300 - 18.750 =$ _____

6. $3.629 \times 15 =$ _____

7. $92.760 : 8 =$ _____

8. $627.300 : 9 =$ _____



■ Osatu zenbaki gurutzatuak, eragiketen emaitzak idatziz.

	6	7	8
1			
2			
3			
4			
5			



LAUKI MAGIKOA

Ilara bakoitzeko, zutabe bakoitzeko eta diagonal bakoitzeko zenbakien batura 15 da.

